

ZMA

ZORROTZ MORROTZ

58. ZBKIA 2019ko UZTAILA

IZARNE OIARZABAL

PILOTARIA

KILIMA FAMILIENTZAKO GUNEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es





...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZarik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



Zorrotzan elkarrekin gozatzeaz eta bizitzeaz harro gaude

Urteak eman ditugu jada ekainean Zorrotza Gozatu eta Bizi programazioa ospatzen. Zorrotzatar guztiok auzoan egiten diren ekintzak, pilo bat izanik, bereiztu ditzagun da ekimenaren ideia nagusia. Eta nola ez, egun berezia, Zorrotza Eguna. Zorrotzan bizi eta elkarrekin bizitzeaz harro gaude!

Illo horretan, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren kontrako alegazioak biltzen ari da elkarte, Azoka parkea eraikitze-proiektuetatik kanpo gera dadin behingoz, eta bere osotasunean parke bezala finkatu dadila nahi dugula argi adierazteko. Zerbait egitekotan, parkea handitu beharko litzatekeela uste dugu. Ekimen honek izan duen harrera onak islatzen du zein den bizilagunen sentikortasuna eta gure gogoetak kontuan izatea espero dugu.

Ezin da ahaztu aurten Auzo Elkartaren 50. urteurrena ospatzen jarraitzen dugula hainbat ekitaldi eta ekintza-ekin. Eta esan bezala, Zorrotza gozatu eta bizitzera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldezakaria
58. zenbakia. 2019ko uztaila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

t @zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saül Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldezakaria Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra




Taberna
MITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako
labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

MESÓN
LUNA

Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Udalak aurkeztutako HAPOn zirraborroak egungo Azoka Parkea txikiagotzea aurreikusten du

Carlos Rodríguez

Udalak aurtan adostu duen Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) zirraborroan Azoka parkeko bi aldeetan etxebizitzak edota ekipamenduak eraikitzeko asmoa dago. Horrek ezinbestean parkearen egungo tamaina gutxituko luke. Bi eremu horiek honako hauek dira: eliza eta Gaztegunearen arteko plazatxo eta biblioteka eta ume-jolasen arteko berdegunea.

Albisteak sorpresa eta haserrea eragin die Auzo Elkarteari eta Taldeen Koordinakundeari. Izan ere, gogora ekarri digu orain dela 10 urte baino gehiago antzeko egitasmoa aurkeztu zuela Udalak, parkearen eremua erabili nahi izan zuelako nagusien egoitza eta egoiliarren aparkalekua eraikitzeko. Abagune hartan auzotarrok gure desadostasuna ozenki eta irmoki erakutsi genion Udalari. Eta borroka horren ondorioz egoitza eta aparkalekua egin egin ziren, baina metro bakar bat ere kendu gabe parkeari.

Oraingoan ere, auzo mugimenduaren eta auzotarren erantzuna txalogarria izan da: oso denbora laburrean 800 helegite inguru aurkeztu dira Udalaren aurrean HAPOn agertzen diren egitasmo hauek gaitzetsiz.

Helegite horietan Zorrotzako auzotarrok honakoa eskatzen diogu Udalari:

- Parkearen egungo tamaina errespetatu, erakuntza berriak egingo ez dutela bermatuz.
- Auzoak behar dituen ekipamenduak (Auzo Etxe berria, kasu) parkearen kanpo eraiki behar direla. Izan ere, aipatu helegitean hainbat eremu alternatiboren proposamena egiten zaio Udalari.
- Parkean aldaketak abiatu nahi badituzte, beti ere izan dadila gaur egun duen tamaina handitzeko; adibidez, Kadagua ibaiaren ertzean erabiltzen publikorako berreskuratzeko.

Artsenal bideko etxea eraitsiko dute behingoz



Zorrotz Morrotz

Artsenal bideko 1. zenbakiko etxea eraitsiko dute uda ostean. Ekainaren 21ean bukatu zen udaletxean obrak esleitzeko eskaintza aurkezteko epea. Etxe honen alboan dagoen bi solairuko etxea botatzea ere aurreikusita dago eremu honetan egoera kaxkarrean dauden etxebizitzak guztiz desagertzeko.

Auzo Elkartek kritikatu du Udalaren utzikeria gai honetan, eta Landako sutea bezalako ez-beharrik errepikatzen beldurra adierazi dute behin baino gehiagotan. “Mezu elektronikoa, bilera eta dei ugari ostean, Artsenal bideko etxea behingoz hormatu dute botatzeko” adierazi zuten elkartearen sare sozialetan.

Udako solstizioa ekitaldiz jantzita

Igor Gutiérrez

Urtero lege, Zorrotza Gozatu eta Bizi izeneko ekitaldi sortaz jantzita etorri zaigu udako solstizioa. Jai Batzordearen eta Taldeen Koordinakundearen elkarlanean, kultur egitarau oparoa izan dugu ekainean zehar, ia dena kalean: kirola, antzerkia, musika, sukaldaritza, jolasak... Aipatzekoak dira Zorrotza Eguna, Denok Batera kulturarteko futbol-5 txapelketa, Kulturarteko Topaketa bera eta San Juan gaua.

Hamahiru urte dira ZGB programa hasi zenetik eta sortutako helburu berberarekin jarraitzen du: berri txarren gainetik, gure auzoa bizitzeko oso leku atsegina dela aldarrikatzea eta auzotarren arteko harremanak estutzea. Uda zoriontsua denor!



1000 euro bi ordutan auzoko dendetan gastatzeko!

Zorrotz Morrotz

Urtero Zorrotza Gozatu ta Bizi programaren barruan Laguntasuna Dendarien Elkartek zozkatzten duen bi ordutan gastatu beharreko 1000 euroko saria irabazi zuen Ana Josefa Egiak. Horretarako zituen bi orduak ondo aprobetxatu zuen ekainaren 22ko goizean, eta oso laguntzaile bereziekin batera, auzoko hainbat dendetatik pasa zen sari ederra gastatzeko. Zorionak!



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefonoa: 94 442 17 12

Zure **2. LENTE**
• PROGRESIBOAK
DOAN
Varilux barne.

* Sustapena indarrean armazoia ere erosita eta graduazio berdinarekin.

RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

XXIII. Ipuin Lehiaketaren sariak banatu ditu Zorrotzako Euskal Txokoak

Zorrotz Morrotz

Zorrotzako Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira San Juan bezperako jaian. Opari bana jasota zuten jada aurretik parte hartzaileek, baina horrez gain, lehiaketan aritutako idazle


gazteen lanik nabarmenenak saritu ditu epaimahaiak. Iaz baino ipuin gutxiago izan badira ere, epaimahaiak lan makala izan du: izan ere, 64 ipuin jaso baitira guztira. Eta ez da lan erraza izan! 12 urtetik beherakoentzat bigarren sari bikoitza ebazti du epaimahaiak, bik merezi zuten eta. Hona hemen, beraz, sarrituen izenak:

12 urtetik behera:

- 1. saria: Goizeder Martín Ortega.
(60 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: June Acinas Rodriguez eta Ugaitz Martín Ortega.
(Euskal mahai-jolas bana).


DBH eta batxillergoko ikasleak:

- 1. saria: Saioa Saiz Ferreras.
(100 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: Safaa Benzyane Fathi.
(Euskal mahai-jolasa).



Ugaitz Martín bere anaiaren eta bere sariekin

Polikiroldegia itxita egongo da uztaila eta abuztu osoan hobekuntza lanengatik



Zorrotz Morrotz

Bilboko Udala uztailaren 1ean hasiko da Zorrotzako kiroldegiko instalazioetako hobekuntza eta mantentze-lanak egiten. Eraikin nagusiko estalkia aldatu, larrialdietako

beste irteera bat egin eta kanpoko espazioak estaliko ditu Udalak, hockey eta padel pistetako eta gimnasioko aldagelatarako pasabidea, hain zuzen ere, euria ari duenean erabiltzaileak busti ez daitezen. Ekimenaren aurrekontua, gutxi gorabehera, 279.000 eurokoa da.


Obrak uztailaren eta abuztuaren egingo dira, Udalaren ustez “erabiltzaileei endredo gutxiago sortzen zaizkielako hilaire horietan, klubek eta ikastetxeek ikasturtean baino ez dituzte instalazioak erabiltzen”.

Estalitako igerilekuko ohiko mantentze-lanak ere hilaire hauetan egitea aurreikusita dago. Horrela irailean ez litzateke berriro igerilekua itxi beharrik egongo, aurreko urteetan legez.



Ikastalde etxaldea

LEHEN



Etetalde hau autopista ganean kokatzen da, Aldapeta kalea eta Bidegain artean dau, Zazpilanda etxaldean pean.

Mila bederatzirehun hirurogetazazpien ireki zan, 67-68 ikasurterako, Frai Juan eskola eta harek emon eutson izena etxetaldeari. Lehenago Joakin garagardotegia (gaur egun Zazpi landa eta Aldapetaren amaieran dau), etxetalde horren pean zegoen, gaur egun autopista dana.

Bere garaian etxe blokeak besterik ez zegoenez, etxe tartean eskonbroa baino ez zegoen. Auzokideak egin ebien gaur egun ikusten diren parketxoak, bakoitza bere herramintakaz eta auzolanen.

ORAIN



**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA



“Asko bidaiatu dut eta leku ugari ezagutu ditut, baina munduko nire lekua aurkitu dut hemen”



HANNA LIRNICHENKO

Jaioterria: Cherkassy (Ukrania).

Noiztik: 2004. urtetik.

Adina: 39 urte.

Lanbidea: Zapata dendako arduraduna.

Orain dela 14 urte etorri zen

gurera Hanna Lirnichenko.

Nahiz eta gaztea izan Bilbora

heldu zenean, azkar lan egiten

hasi zen eta bere ikasketak

bukatzea lortu zuen gainera.

Naraoa Peña

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

Orain dela 18 urte joan ginen Santanderre-ra nire senarra eta biok. Geroxeago, Kanariar Uharteetara joan ginen gure eztei-bidaia ospatzeko, eta liluratu gintuen. Hor bizitzen geratzea erabaki genuen. Urte batzuk pasa ondoren, Bilbora bizitzera etortzea bururatu zitzaigun (ausazkoa izan zen), zehazki Zorrotzara. Auzoan etxea erosi, eta 14 urte eman ditugu jada!

Bilbon denda batean aritzen zara lanean. Lan berdina zeneukan zure herrian?

Ez neukan lan berdina. Unibertsitatean ikasten nenbilen, oso gaztea nintzen oraindik. Hona etortzerakoan ikasketak utzi behar izan nituen, baina ziurtagiriak lortu nituen Deustuko Unibertsitatean turismoko ikasketak jarraitzeko eta bukatzeko.

Zer da hemen gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Zorrotzak dituen parkeak dira gehien gustatzen zaidana. Auzo guztiek ezin dute esan horrelako parke hain politak dituztenik. Eta metroa ez izatea da gutxien gustatzen zaidana.

Euskaraz hitz egiten badakizu? Ikastea gustatuko litzazuke?

Ez dut euskaraz hitz egiten. Oso hizkuntza interesgarria iruditzen zait, baina oso zaila ere bai. Euskara ikasteko denbora asko behar duzu, eta nire kasuan, ez daukat hainbeste denbora. Nire bizitzan zehar hizkuntza asko ikasi ditut: ingelesa, frantsesa, errusiarra, ukrainiarra, poloniera, eta orain txinera-ekin hasi naiz.

Auzoko ekintzetan parte hartzen duzu?

Nire semea txikia zenean inauterian parte hartzen genuen. Zorrotza Egunean ere par-

te hartzen nuen. Orain bera nagusiagoa da eta nik lanarekin ez daukat denbora askorik, baina antolatzen dena ikustea atsegina dut. Auzoan ekitaldi pilo bat antolatzen dira eta hori primerakoa da!

Janarira moldatzea kostatu zitzaizun?

Ez, ez zitzaidan kostatu. Nire herrian janaria hemengoaren antzekoa da. Nire herrialdean haragijaleak gara oro har, eta hemen ordea, arrain gehiago jaten dugu. Arraina haragia baino gustukoagoa daukat nik, beraz, ondo.

“ Ekitaldi pila bat antolatzen da Zorrotzan, eta hori asko gustatzen zait. Orain gutxiago parte hartzen badut ere, asko gustatzen zait ikustea antolatzen dena ”

Zeren falta sumatzen duzu?

Nire familia eta lagunak dira faltan gehien sumatzen dudana. Urtero bueltatzen naiz haiek ikustera. Nire amari adibidez, hegazkinez hegan egitea beldurra ematen dio, eta nahiago du ni herrira joatea bera hona etorri baino. Baina ziur aski azkenean animatuko dugula (kar, kar)

Zure herrira bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Egia esanda, ez. Nire umea hemen jaio da, eta nire semea pozik dagoen tokian ikusten du nire burua eta oso pozik jakina. Hemen geratuko naiz, munduko nire lekua aurkitu dut eta.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5- atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

Santer & BAR

Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

KILIMA, FAMILIENTZAKO GUNEA

Kilima, familientzako jolas librerako gunea



Bartzelonako Can Batlló bisitatu ondoren, Gure Lurrako kide batzuek La Nau Espai Familiar bezalako gunea bat auzoan sortzea erabaki zuten. Hala, lanean jarri eta 2018ko urrian abiarazi zuten Kilima familientzako gunea, Auzoka Komunitate Zentroan.

Testua eta argazkiak: Igor Gutiérrez

Kilima jolas librerako espazio bat da, 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta beraien familientzat. Bertan, umeek jolasera-ko kalitatezko materialak dituzte, adin eta mugikortasunaren arabera. Familiak haurra zaintzeaz gain berarekin jolasean aritu daitezke, baina haurren jolasa inola ere zuzendu gabe. Hor dago Kilimaren mamia: umeen autonomia sustatzea beraien askatasuna errespetatuz. Hain zuzen, La Nau espazioko eredu bera.

Haurrak senideek lagunduta etorri behar dira, gehienez ere bi izanik, eta bazkidetza

eskatzen da. Horrela, familiek beraiek espazioaren eta bere jardunaren ardura hartzen dute. Hasiera batean, Gure Lurrako bi hezitzaile egoten ziren, familiei laguntzeko, zatlantzak argitzeko, jolas librearen dinamika ikasteko... Baina, urtariletik aurrera, familiek bere egin dute espazioaren kudeaketa.

Kilima Auzoka Komunitate Zentroan egiten da, astean bi arratsalde, dantza taldeak aritzen diren areto bereberean. Jolasgunea momentuan muntatu eta desmuntatu egiten da eta hurrei merienda emateko aukera ere badago, dena txukun utziz gero. Eta garai hauetan bitxia badirudi ere, mugikorren era-



bilera mugatua dago, familien arteko harremanak sendotzeko eta haurren beharretara adi egoteko.

Baina Kilima jolaserako gune bat baino gehiago da, gurasotasun positiboa lantzeko gunea ere bada. Eta ez bakarrik egunero-koan, izan ere hainbat hitzaldi eta ikastaro antolatzen dituzte, familiek azalduko kezketan oinarrituta: umeen beldurrak, umeen arteko liskarrak, neba-arreben arteko gatazkak...

Hori dena posible egiteko, diru-laguntza bat kudeatzen du Gure Lurra elkarteak, jostailu eta liburuak erosi eta aparteko ekitaldiak antolatzeko. Eta hezitzaileek proiektua bultzatzen jarraitzen dute, betiere familiak buru izanik. Aurten ehun-bat familia bazkide dira Kiliman eta datorren ikasturtera begira, haurdun diren gurasoak ere egotea espero dute.



**Jolaserako gune bat baino
gehiago da Kilima,
gurasotasun positiboa
lantzeko gunea ere bada**



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

IZARNE OIARZABAL: Pilotaria

“ Jende asko ezagutzeko aukera eman dit pilotak ”

Duela 4 urte Zorrotzara etorri zen 32 urteko heziketa bereziko irakasle andoaindarra da Izarne. Lana kirol zaletasunekin uztartzen du: *Zorrotzako Futbol Sala* taldean jokatzeaz gain, duela bi urte pilotan federatu zen eta Santurtziko Itsasalde klubean aritzen da eskupilotan. Basauriko Txapelketa bat irabazi du dagoeneko, eta iaz Zorrotzako jaietan antolatutako pilota erakustaldian ere parte hartu zuen.

Testua eta argazkiak: Aitor Marín



Non eta zergatik hasi zinen pilotan jokatzan?

Txikitan ikastolan pilotan aritzen ginen errekreoan. Gustatzen zitzaidan, baina inoiz ez da izan zerbait serio. Duela urte batzuk Andoainen, nire herrian, nesken taldea aterazena palan jokatzeko. Joan nintzen probatzera, eta gustura. Astean behin entrenatzen genuen teniseko pilotarekin. Hona heldu nintzenean futboleko apuntatu nintzen Zorrotzan eta han ezagutu nuen Santurtzin pilotan ere basebilen neska bat. Berak animatu ninduen probatzera. Animatu nintzen eta gustatu zitzaidan, eta horrela hasi nintzen.

Atzelaria edo aurrelaria?

Norekin jokatzan dudana arabera, aldatzen dugu. Baina aurrean nahiago, nire ezkerre ez baita oso ona atzean aritzeko.

Bakarka edo binaka nahiago?

Ez dakit. Segun noren aurka... Bakarka asko gustatzen zait, baina ezkerrekin esan daiteke oraindik ikasten nabilela, beraz esan daiteke hobeto moldatzen naizela binaka, batez ere atzelari on batekin, kar, kar.

Txapelketetan parte hartzen duzu? Zelan antolatzen da lehiaketa?

Berez, ez dago lehiaketa ofizialik, ezta mailarik ere. Emakume Master Cup existitzen da, baina ez da federazioak antolatutako zerbait. Honetan bai, badaude bi maila: promozio maila eta elite maila. Ni promozio mailan ibiliko nintzateke, baina maila baxua daukat. Master Cupeko txapelketan parte hartu dut, baina ez naiz inoiz lehenengo kanporaketatik pasatu. Gure "mailako" Basauriko Txapelketa batean parte hartu dut birritan, iaz banaka eta irabazi nuen; aurrean binaka eta finalaurrekoan kanporatu gintuzten. Santurtzin klubak txapelketaren bat antolatu du, baina oso neska gutxi animatzen da txapelketetara.

Pilota mota ezberdinekin aritzen zara? Zein gustukoena?

Neska gehienok pilota *goxua* erabiltzen dugu, eta beste batzuek *mistoa* deitzen diotena erabiltzen dute. Ezberdintasunak badaude, batzuek bote handiagoa egiten dute, beste batzuek gutxiago. Baina esan bezala, neska gehienok erabiltzen ditugu pilota *goxuak*: be-



“ Pilotarekin lotura betidanik izan dut. Aitarenekin ondoan frontoia zegoen, udako herrian ere bai. Pilota eta futbola baino ez zegoen... ”

rriak direnean oso bote bizia dute, baina segituan galtzen dute botea. Pilota hauek min gutxiago egiten dute, baina hala ere, ohituta ez bazaude eta takorik ezean, mina egiten dute. Nik takoekin jokatzan dut. Tako gabe hasi nintzen eta egunero esku morea, aste osoa minarekin... Beraz takoekin hobeto.

Zenbat aldiz entrenatzen duzu astean?

Santurtzin asteazkeneko ordu eta erdi, eta batzuetan, ahal dudanean, Gernikara joaten naiz. Gernikan asteartero eta ostegunero entrenatzen dute, baina Gernika urrunago dago, bidaiak denbora gehiago suposatzen du, gastuak...

Lana eta zaletasuna tartekatzen dituzu. Zaila egiten zaizu entrenamendua lan egin ostean?

Erraz moldatzen naiz nire ordutegiekin. Ez zait batere zaila egiten.

“ Oso kirol sanoa da pilota. Ikusleek, nahiz eta aurkariaren lagunak izan, berdin-berdin txalotzen dituzte zure tantoak eta oso giro ona egoten da frontoietan ”



Pilotaz bizitzea posible al da?

Gaur egun ez. Hemendik urte batzuetara agian, baina momentuz, nik dakidanez ez dago inor.

Emakumezkoen txapelketak eta partidak areagotu egin dira. Interesa pizten du emakumezkoen pilotak?

Bai, nik uste dut baietz. Emakumezkoen Master Cup telebistan ematen hasi dira eta indarra hartu duela uste dut. Herriko jaietan gero eta emakumezkoen txapelketa eta partida gehiago antolatzen dira... Lehen mutilezkoen txapelketak zirenak, orain emakumezkoena ere badute askotan... Pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen doa.

Baina sarietan adibidez, ezberdintasuna badago oraindik. Zergatik?

Bai, desberdintasuna badago, baina zaila da zergatia azaltzea. Orain arte emakumezkoena ikusi egin ez delako? Ez dakit... Ez gaituzte orain arte serio hartu agian, eta hori aldatzen doala ematen du zorionez. Partidu batera joateagatik mutilek neskek baino gehiago kobratu izana entzunda daukat, baina dena den, niri ez zait inoiz gertatu txapelketa ba-

tean parte hartzea eta saria ezberdina izatea. Ez litzateke batere justoa eta espero dezagun egoera hau aldatzea etorkizunean.

Futbolean ere aritu zara, ezta?

Bai, belar futbolean aritu naiz 14 urtetatik. Hona etorri nintzenean zerbait egin beharrean nengoen eta Zorrotzan areto futboleko emakumezkoen taldea zegoela enteratu nintzenean, animatu nintzen.

Eta zein duzu gustukoagoa, futbola edo pilota?

Bietan gustura aritzen naiz, baina futbolean urte gehiago eman ditudanez, maila hobea daukat. Pilotan ikasten nabil oraindik.

Eta zer dute berezia zuretzat kirol hauek?

Ba pilota txikitatik ikusi dudala telebistan. Andoainen aitaren auzoan, baserri ondoan frontoia dago, eta txikitatik lotura izan dut. Udan herrira joaten nintzenean, han ere frontoia. Eta frontoia eta futbola egunero, besterik ez zegoen. Eta oso futbolzalea izan naiz betidanik. Txikitan telebistako partidak ikusten nituen, berdin zitzaidan nork jokatzeko zuten.

Zerk eman dizu pilotak orain arte?

Bada duela gutxi hasi nintzen pilotan, eta beraz garaipen handirik ez daukat... Baina jende asko ezagutu dut. Banaka edo bina-ka jende asko ezagutzeko aukera ematen du pilotak, bikote desberdinekin jolasteko eta leku eta frontoi berriak ezagutzeko aukera ere ematen du.

Zer esango zenioke pilotan hasi nahi duen neskatoari?

Animatzeko eta probatzeko dudarik gabe. Gaur egun, takoekin eskua berehala ohitzen da, eta ez da minik hartzen eskuan. Oso kirol sanoa da, ez da adibidez futbolekin bezala. Ikusleek, nahiz eta aurkariaren lagunak izan, berdin-berdin txalotzen dituzte zure tantoak eta oso giro ona egoten da frontoietan.

Futbolekin eta pilotan arituta, pilota futbola baino sanoagoa dela esango zenuke?

Bai, askoz gehiago. Futbolekin berehala txistu egiten zaie bai epaileari, bai jokalariei. Pilotan inoiz ez dut txisturik entzun, eta horrela aritzea astakeriatzat hartuko litzateke frontoian.

Pilotariak ere furbolariak baino sanoagoak?

Beno... Paperak galtzen dituzten horietari-koak ere badaude pilotan, ez pentsa! Bero-tasun horretan noizbehinka niri ere kexaren bat ere atera zait, baina bi kiroletan egonda, futbolekin gehiago haserretzen naiz pilotan baino, eta kideak ere sanoagoak dira. Bai-na oro har, ez bata ez bestean, galtzea ez dut atsegin, nahiz eta pilotan sarritan galdu, kar-kar!

ZORROTZA

1980-2017



LABURREAN

Gantxoa ala bi paretara?

Bi paretara. Gantxoa behar bezala ez dakit egiten, kar kar!

Jokatzeke: palaz, eskuz, zestaz? Eta ikusteko?

Eskuz, bietarako.

Pilotari bat?

Aimar Olaizola betidanik gustatu zait.

Eta futbolekin zein talderen zalea?

Errealzalea.

Frontoi bat?

Andoingoan esango nuke. Miribillan jo-ka-tu dut eta oso gustukoa, eta mitikoeta-tik Atanon jokatzea gustatuko litzaidake.

Beste zaletasunik?

Edozein kirol, baina batez ere mendira joatea.

Oporretan joateko leku bat?

Ufa! Asko. Aurten Norvegiara joango naiz.

AUTO ESKOLA KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Restaurante Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enlarguz)
Eguneko menua

Uztailak 5 ostirala

20:00 Gaztetxean.

ZORROTZA LIVE.

Batukada, txalaparta, Nize, Leie Meie, Contracts, Ma Boi




Uztailak 12 ostirala

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua:

POISON IDEA. Sarrera 10 / 12 €.



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (iraila-urria-azaroa) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi irailaren 12a baino lehen.

Patata tortilla



Osagaiak: Olinoa, patatak, arrautzak, gatzia, urdaia, gatzia eta gatzia birrindua.

Hasteko, patatak zuritu eta txikitu. Bota olio asko zartagin handi batean. Olinoa bero dagoenean, bota patatak. Frijitu 15 minutuz. Jarraian, kendu olinoa eta gorde patatak plater batean. Arrautzak irabiatu eta gero, gehitu patatak eta gatz pixka bat. Bitartean, jarri olio pixka bat zartaginean eta berotu, bota nahasketaren erdia. Gainean jarri gatzia eta urdai xerra batzuk, eta horren gainean nahasketaren beste erdia. Frijitu 3 minutuz. Ondoren, plater handi batekin buelta eman eta beste 3 minutuz utzi egiten. Bukatzeko, kendu sutatik eta plater baten gainean jarri eta moztu zerbitzatzeko.

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 €

VENECIA TABERNA

Ordutegia:

Goizeko 6etatik gaueko 11k arte zabalik egunero, igandeetan izan ezik.

Abaro estrata, 10. Telefonoa: 94 482 06 25



Doinua:

Amodioa gauza tristea

Lau urte pasa eta haxe da

beste zerbaiten bezpera

egia esan noraezean

egunetik egunera

bidegurutze bat izaten da

erantzun bako galdera

hurbil dagoen etorkizunak

ziurra du tankera

bukaera orok izaten baitu

beti bere hasiera

Asier Urkiza



Basa.

Miren Amuriza. Elkar. 2019. (XX. Igartza Saria). 128 orrialde.



Zaharra da Altzerreka, erreka-bazter ainube batean dagoen baserria. Zaharra bertako seme Henry, urte luzez Ameriketara artzain ibilia. Zaharra da Sabina Gonenola ere, koinatu elbarria eta etxaldea egoskorkeriaz gobernatzen dituen alarguna. Seme-alabek egunero-koa erraztu nahi dioten arren, uko egiten dio moderinitateari, erosotasunari, inork ezarritako arrastoan sartzeari... Behiekin, ardiekin, txakurrekin, katuekin bat egiten du ondoen Sabinak, animaliei baizik ez die gozotasunik adierazten. Etxekoekin dena du erreze-
loa, ika-mika eta tentsioa; auzoekin, dena liskar eta norgehiagoka. Mundu ikuskera baten akabera kontatzen digu Miren Amurizak, modu zehatz eta indartsuan, pertsonaia baten eta gizarte eredu hil-hurren baten erretratu gordin bezain fidela eskainiz, hizkuntza malguz eta estilo sendoz.



Deus ez:

Sherpak (Autoekoiztua) 2019



Aurreko zenbakietan Bizkaiko taldeez mintzatu baginen ere, honakoan Gipuzkoa aldera joko dugu, Eibarrera hain zuzen ere. Oraingoan ez dugu herri-ko talde mitikoena hizpide izango, Deus Ez izeneko hirukote gaztearen "Sherpak" lan berria baizik. Euskal Herriko musika eszenan zeresana ematen ari den taldearen bigarren diskoa dugu honako hau (aurrekoa 2017an kaleratu zuten). Rockaren iturritik

edaten badute ere hainbat estilotako pasarteak aurkituko ditugu lana osatzen duten 10 abestietan zehar. "Urrun" single-a ardatz hartuta (bideoklipa sarean duzue ikusgai) "Hegoak" edo "Sua" bezalako abestiak nabarmenduko nituzke, non instrumentuek sortutako marrazkiak entzulea harrapatzeko arma eraginkorrak diren. Melodia lasaia indarrarekin nahastean zirrara sortzeko gaitasuna eta sentimenduak azaleratzeko intentzioa etxeko ziguiluaren marka dira. Zinez gomendagarria Deus Ez taldearen proposamena eta diskoa entzun ondoren zuzenean disfrutatzeko gogoak handitzen dituen horietakoa dudarik gabe.

Ibai Barrios



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Frai Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Egonkortasuna

Lasaitasun ederrean bizitzeko,
zer hobe kudeatzaile bikainenei
botereaz arduratzen uztea baino?

Hauteskunde jasaren ostean, espero zenez, nobedaderik ez mendebaldeko frontean. Euskal oasian, hots, Euskadi deitzen dioten zera demonio horretan, The Godfa... EAJ garaile. Bozka eskutada batengatik poztan den ezkerria alde batera utzita, Sabin Etxean zeuden bisaiarik alaienak maiatzaren 26ko gauerdian. Nafarroan, aldiz, hiri buruzagia berriz ere kuneteroek irabazia, eta ezkerrearen deskalabru handi samarra Gobernuan. Espainian barrena PSOE lehenengo indarra, eta faxisten presentzia normalizatua instituzioetan. Espainiako ezkerria, berriz, jipoi itzela hartuta.

Hauteskunde egunek ekarritako poz txiki, galera handi eta orgasmo erratu guztien ondoren, gobernu osaketarako negoziaketa deitzen dioten zirku mediatikoa etorri zaigu. Egunotan iragarri denez, EAJ eta PSOE egonkortasunerako akordioa itxi berri dute. Hitz hanpatu horien atzean ezkutatzen dena ordea zera da, aukera dagoen udal eta batzar nagusi guztietan paktu bidezko boterea segurtatzea. Zer eta egonkortasuna behingoz

finkatzeko. Euskadi den iraultza foko, matxinada toki eta iskanbila kiribila apaltzeko, normaltasunera berriz ere bueltatzeko. Jendeak lasaitasuna gura baitu, munduarekin bakean bizi, norbere buruaz baino ez kezkatu, agian pilatesera apuntatu... Eta horretarako, lasaitasun ederrean bizitzeko, zer hobe kudeatzaile bikainenei botereaz arduratzen uztea baino. Eurek bai baitakite zer komeni zaigun, guk nahikoa dugu-eta eguneroko bizimoduarekin.

Kudeaketa, eta ez politika. Kapitalak kudeatzaileak behar ditu, ez politikariak. Politikak kalte egin dio kapitalaren fluxuari; kudeaketak, oster, fluxua igarotzeko hodiak garbitzen ditu, oztopoak deuseztatzen, ahalik eta ondoen, bizkorren, eraginkorren mugitu dadin. Kudeatzaile onak egonkortasuna bilatzen du. Egonean nahi du etekinik atera ezin zaion oro, egonean nahi gaitu gu. Hori horrela, egoten dakien herria da gurea. Herri bat non hainbestek eta hainbestek kolpe zorririk jo gabe jarraitzen duten, kapar legez botereari itsatsita. Euskal oasia, zure eta zure lagunen txiringitoak zutik irauteko lekuri onena. Denetarik dago, erraustegiak, azterketa ustelak, entxufismoa, AHT, polizia hiper-jator bat, Basque (very basque!) centerrak, eta baita Game of Throneseko gazteluak ere. Mendia eta Ortuzar irribarretsu. Egonean egotea, izan ere, gauza ederra da.

Asier Urkiza



**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza

Iragar zaitez



ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hizkuntzaren erabilera sexistaz haratago, komunikazio sexistari buruz ariko gara. Hain boteretsuak diren gaur egungo sare sozial digitei esker, komunikatzeko modu berriak ditugu eskura. Honek, aisialdi eta lan arloan, oso aukera onuragarriak eskaintzen ditu, baina beste alde batetik, intimitate eskubidea inoizko ahulen dago.

Emakumeak gara komunikazio sexistaren eragina gehien sufritzen dugunak. Besteak beste, eduki sexualeko irudiak zabaltea mehatxu edo hertsapen modu bezala, emakumeei gehien eragiten dielako. Honek pertsonaren ohore, intimitate eta segurtasunean daukan eragina itzela delarik.

Askatasun eta autonomia sexualaren kontra doan biolentzia mota honek ondorio sozial larriak dakartza eta gizarteak eta inguruneak emandako erantzuna inoiz ez da nahikoa. Gainera, emakumeen sexualitatea bizitzeko modu askea zigortzen du.

Lehenengo erruduna bideoa bidaltzen duena den arren, honi zabalkuntza ematen diotenek ere badaukate erantzukizuna. Horregatik gizonei, komunikazio sexistari jarraipena ez ematea eta honen kontra erantzutea eskatzen zaie. Eta hori arrazoi nahikorik iruditzen ez zaionari, ondo dago gogoraztea besteen bideoak haien baimen espliziturik gabe zabaltea delitua dela.

SALAKETA ARGAZKIA



Zorrotzako Lorategia Taldean argirik ez

2017ko irailean gai bera aipatu zen atal honetan. Bertako auzokideek askotan egindako eskaria da, eta Barrutiko Kontseiluan onartuta egon arren, Udalak ez du oraindik lana burutu. Noiz arte?



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Zorrotzan haurrak euskaraz bizitzea. Posible al da?

Batzuentzat, akaso, aktibitateak
haurrentzat euskaraz eskaintzea,
euskara inposatzea izango litzateke.
Gaztelania inposatzen bada, aldiz,
normalitatea. Eta normalitate horretan
bizi gara. Gure auzoan euskara
gutxietsia izaten den normalitatean.

Gaurkoan gure auzoan izan daitekeen erreallitate baten inguruan gogoetatu nahi dut: haurrek euskaraz bizi ahal izateko dauzkaten aukerak. Askok jakingo duzuen bezala, ni duela bi urte baino gehiagotik Gipuzkoan bizi naiz. Gure txikia Añorgako ikastolara joaten da. Bere bizitza euskaraz egiten du arazorik gabe. Altxatzen denetik, ohera joan arte. Aurtengo Zorrotza Egunean parkean egon ginen, sukaldatzen eta tarteren batean beste ume batzuekin jolasten eta dantza egiten. Umeentzako dantzaldia egon zen, Kantu Kolore taldearekin, euskaraz. Baina, galdera sortu zitzaidan, posible al da gure haurrak Zorrotzan euskaraz bizitzea?

Duela hilabete batzuk Euskaraldia ospatu zen gure auzoan eta esperientzia polita izan zen. Badakit pertsona batzuek "belarriprest" posizioan jarraitzeko balio izan duela, eta ez da gutxi. Baina, jakin badakit, Zorrotzan, euskara hizkuntz minoritarioa da. Euskararentzat eta euskaraz bizi nahi dugunontzat ez daude gaztelaniarentzat dauden aukera berdinak. Nire gurasoen adineko jendearentzat (60 urte ±) euskaraz bizitzea ezinezkoa da, eta tamalez, nire adineko belaunaldiarentzat (30-40 urte±) ere bai. Maiz, euskara ez da ulertzen eta gaztelerara pasatu behar gara. Polita litzateke ordea, etorkizunera begira euskaraz Zorrotzan gero eta presentzia hanidagoa edukitzea eta

gure haurrek euskaraz bizitzeko aukera eduki ahal izatea. Alegia, euskaldunok (edo euskaradunok) gaztelerara hiztunek dituzten aukera berdinak edukitzea. Hori euskararen egoera hobera doan seinale izango litzateke.

Baina egoera horretara heldu ahal izateko, ez da nahikoa haurrak D ereduari matrikultzea. Maiz, gure parke eta kaleetan haurrek erdarara jotzen dute edo jo behar izaten dute. Aurrekoan, Zorrotza Egunean guri momentu askotan gertatu zitzaigun bezala. Baina arazoa ez da momenturen batean gaztelerara jo behar bada, hori salbuespena bada; arazoa da hori erregela bilakatzen denean. Gure kaleetan euskaraz bizitzea ia ezinezkoa bilakatzen denean. Argi dago, Zorrotzan egoera soziolingustikoa dagoena dela, kontua da, euskaraz bizi ahal izateko zer egin behar den. Eta horrek guztion bulkada behar du.

Etorkizuna aldatu ahal izateko, orainean ere al daketak egin behar dira. Eta nonbaitetik hasteko, ondo litzateke gure haurrentzat eskoletatik kanpo eskaintzen diren aktibitateak behintzat, euskaraz egiteko eskubidea edo aukera eduki ahal izatea. Ez dezagun ahaztu ume gehienek (edo ia denek) eskolan euskaraz ikasten dutela, zergatik orduan beste aktibitateak gaztelaniaz eskaini behar dira? Udal zerbitzuetatik eta auzoko eragileetatik haurrentzat egiten diren ekimenak euskaraz izatea gutxienezkoa bat izan beharko litzateke. Itxeerak, tailerrak, espazioak, dantzaldiak, udalekuak, eta abar. Eta gaur egun beti ez da horrela izaten. Batzuentzat, akaso, aktibitateak haurrentzat euskaraz eskaintzea, euskara inposatzea izango litzateke. Gaztelania inposatzen bada, aldiz, normalitatea. Eta normalitate horretan bizi gara. Gure auzoan euskara gutxietsia izaten da, eta hori da normaltasuna. Badakit ahaleginak egiten ari direla, baina ez nahikoak dira gaur egun. Horregatik lerro hauetatik gure haurrak euskaraz bizi ahal izateko guztion esfortzua eta konpromisoa handitzeko deialdia egin nahi dut. Gaur ez bada, bihar gure haurrak euskaraz bizi daitezten. Bihar etzi baino hobeto. Guztion esku dago, euskaraz bizitzeko espazioak eraiki ditzagun!

Emozioa mugak zeharkatzen boluntario talde baten eskutik

Oraingo honetan Senegaleko M'Bour, hiri arrantzalea izango da norakoa, kanpaldi eta jarduera desberdinak gauzatuz, bertako umeein 15 egunetan zehar.

4.340 kilometro dira, M'bour (Senegal) eta Zorrotza banatzen dituztenak. Mapan duten distantziaz gainera, Senegaleko kultura eta Marokoko kultura ere presente izan ditugu, ekainaren 22an ospatu den Zorrotzako Kulturarteko II. Topaketan. Espazio hau, trebetasunak elkarbanatzeko, zapore berriak dastatzeko izan da, baina batez ere, postasun eta irribarez betetako espazioa.

Ziur gaude emozio hauek ez direla parkean bertan geratu, mugak zeharkatuko dituztela boluntario talde baten eskutik, "Zorrotzatik Mundura" goiburuz, Tusitala eta Gure Lurra-ren elkarlanarekin.

Oraingo honetan M'Bour, hiri arrantzalea izango da norakoa, kanpaldi eta jarduera desberdinak gauzatuz, bertako umeein 15 egunetan zehar.



Proiektuaren xedea, kultura eta auzoen arteko lotura sortzea da, pertsonen artekoa. Horregatik, esperientzien hartu-emanen edizio berrian parte hartzera animatzen zaituztegu eta nork bere harri-koskorra ekarri, Senegalen elkarlanean egongo garen Creando Futuros elkarteari laguntza emanez.

Anima zaitzte eta parte hartu!



cafet**xinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAJ JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



Nekane

Auzoko azpiegiturak hobetzea, jaietarako dirulaguntza handitzea eta auzoan sortzen diren ekintzei trabak ez ipintzea!



Aritz

Auzo etxe eta liburutegi handiagoak eraikitzea eta jaietarako dirulaguntza hobetzea. Eta beti ere, auzoen alde lan egin dezaten!

Udal legegintzaldi berria

Zer eskatzen diozu udal gobernuari datozen lau urtetarako?

Iratxe Pérez eta Naroa Peña



Monika eta Enara

Segurtasuna handitzea, Azoka parkea ez ukitzea eta Zorrotza-Kastrexana errepidean oinezkoen segurtasuna handitzea, adibidez autoen abiadura motelduz.



Txamizo

Jaietarako dirulaguntza handitzea eta Molinos Vascos eraikina berritzea eta ingurunea berpiztea auzoko bizitza suspertzeko.



Noemí

Parkean eraikinik ez egitea eta, epe luzera, itsasadarren inguruko guneak garbitzea, atontzea eta aisialdirako prestatzea.

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

1^o urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



!Kasi Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI HILDI
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN HILDI
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



I.E.S. ZORROTZA
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.leszorrotzabhi.hezkuntza.net

Zu Zorrotzan zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi
baino gehiago
Euskal Herri osoan

Tú estás en Zorrotza, AEK también

Más de 100 euskaltegis
en toda Euskal Herria




EUSKARA - IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Eman izena

Matricúlate

 Euskara-eskolak Clases de euskera	 Mintzapraktika
 Normalizazio-planak Planes de normalización	 Online
 Barnetegiak	 Autokaskuntza Autoaprendizaje
 Itzulpenak - Zuzenketak Traducciones - Correcciones	 BIZU! aldizkaria

- **Dirulaguntzak** | Becas
- **HABEK homologatutako euskaltegiak**
Euskaltegis homologados por HABE
- **Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak**
Cursos de preparación de exámenes oficiales

Zalbidea 7 • 94 441 49 20
zorrotza@aek.eus
www.aek.eus

ONline maileguak

**%4,99ko ITNeen hasita
(%5,11 UTB)**

*Online maileguetarako kanpainako eskaintza (online Bankan edo app mugikorrean kontratatuak). Adibideak:
- 15.000 euroko edo gehiagoko maileguetarako,
ITN: %4,99; UTB: %5,11. Irekitze-komisioa: %0.

Adibidea: Zenbatekoa: 15.000 €; Epea: 84 hilabete;
hileko kuotak: 211,94 €; azken kuota: 211,79 €; guztira zordundutako diru-kopurua: 17.802,81 €.

- 5.000 euroko edo gehiagoko maileguetarako,
ITN: %5,99; UTB: %6,16. Irekitze-komisioa: %0.

Adibidea: Zenbatekoa: 5.000 €; Epea: 48 hilabete;
hileko kuotak: 117,40 €; azken kuota: 117,53 €;
guztira zordundutako diru-kopurua: 5.635,33 €.

Konpentsazioa dirua aurretik itzultzeagatik, amortizazio-data eta mugaegunaren arteko epea urtebete baino luzeagoa bada: Itzulitako maileguaren zenbatekoaren %1. Urte batekoa edo hortik beherakoa bada: %0,5. Ez da inoiz izango mugaeguneraino sortuko lirakeen interesak baino handiagoa.

Mailegua ematen duen finantza-erakundeak onartu eta aldeko azterketa egin behar du. Eskaintza hau kontsumora zuzenduta dago eta, beraz, kontsumorako ez diren eskaerak eta berfinantzaketak kanpoan geratzen dira.

Ezin da beste sustapen batzuekin metatu. Kanpainaren azken eguna: 2019/08/31.

Espainiako Bankuak ikuskatutako erakundeak:
Erakunde Mailegu-emailaia:
Kutxabank SA.

Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077.

Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emanda. Tomoa: 5226;
Liburua: 0; Orria: BI-58729;
Folia: 1; Inskripzioa: 1.

AmetsONline
maileguak

kutxabank

ERRAZ
HURBIL
ORAIN